

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Durangoko Udala****Izendapen askeko prozedura bidez, Durangoko Udaleko Udaltzaingoko Ofizial postua hornitzeko deialdia.**

Durangoko Udaleko toki gobernu batzak, 2019ko apirilaren 11ko ebazpenaren bidez, ondorengo akordio hauek hartu zituen:

Lehena: Pertsona bat udaltzaingoko ofizial moduan izendapen askeko prozeduraren bidez izendatzeko deialdia onartzea eta jendaurrean erakustea.

Bigarrena: Aipatutako deialdia arautuko duten hurrengo oinarri arautzaileak onartzea:

IZENDAPEN ASKEKO PROZEDURA BIDEZ, DURANGOKO UDALEKO OFIZIAL POSTUA HORNITZEKO OINARRI ARAUTZAILEAK**I. Deialdiaren xedea**

Euskadiko polizia buruzko 1992ko uztailaren 17ko 4/1992 Legeko 67. artikulua xedatutakoa betez, Udal honetako lanpostuen zerrendan jasotako lanpostu hau izendapen askeko sistema bidez hornitzeko deialdi publikoa jakinaraztea. Ezaugarri hauek ditu aipatutako postuak:

- Plaza: ofiziala.
- Postua: Udaltzaingoko ofiziala.
- Postuaren kodea: 411 3 2.
- Taldea: C-1.
- Destino osagarriaren maila: 22.
- Berariazko osagarria: 32.438,28 euros.
- Berariazko Osagarri Berezia: %20.
- Dedikazio-erregimena: %100. Postu honen funtzioek titularraren disponibiltatea eskatzen dute bileretara, batzordeetara, osoko bilkuretara eta abarretara ohiko lan-ordutegitik kanpo joateko.
- Hizkuntza-eskakizuna: 3, derrigorrezkoa.
- Eskatutako titulazioa: Batxilergoko titulua edo titulu teknikoa.
- Bestelako eskakizunak: B gidabaimena.
- Postuaren kokapena: Durangoko Udala, Zeharkalea, 3.
- Mendekotasun hierarkikoa: Alkatetza.

Honako hauek dira postuaren funtzioak:

Erantzukizun orokorrak

Segurtasun Sailaren zerbitzua zuzentzea, programatzea eta kontrolatzea, giza bi-tartekoen zein baliabide materialekin lotuta Sailaren baliabideen gaineko erantzukizuna eragingarritasunez bere gain hartuta.

Egitekoaren deskribapena

- Alkatearen mendekotasunaren pean, Udaltzaingoko zerbitzuaren erantzukizuna bere gain hartzea.
- Herritarren segurtasunarekin, delinkuentziarekin, gizarte-bazterketarekin, bideko segurtasunarekin eta babes zibilarekin lotutako gaietan Alkatetzari aholkularitza eta plangintza egitea.
- Egoera gatazkatsuetan bete beharreko jarduera-urratsak eta kode deontologikoa zehaztea.



- Alkatetzari zerbitzuaren aurrekontu mailako aurreikuspenak aurkeztea, langileen eta materialaren beharrekin lotutako eskariak egitea eta uniformeko arrokekin, ibilgailuekin eta materialekin lotutako erosketa eta homologazioa gainbegiratzea.
- Bere kargura dagoen kolektiboko kideentzako sariak eta zigorrak proposatuz, txostenak egitea.
- Alkatetzari egunero, eta ezarritako bitartekoen bidez, Udaltzaingoko zerbitzuko gorabeheren eta jardueren berri ematea.
- Udaleko Zuzendaritza Teknikoko Batzordean parte hartzea, erreferentziatzeko sailari dagozkion planak prestatzen, gauzatzen eta kontrolatzen.
- Eskatzen zaionean, Barne Erregimeneko eta Ogasuneko Batzordera joatea.
- Udaltzaingoaren funtzio eta zereginekin lotutako gaiei dagokienez, erakunde publikoei, pertsonaei eta erakunde pribatuei harrera egitea eta arreta ematea.
- Herritarren segurtasun eta babes zibilarekin lotutako udalaren helburuen programa operatiboak eta planak garatzea eta bultzatzea, polizia izaera duten eragiketarik gainbegiratzuz helburuak eta zerbitzuaren eragingarritasuna betetzen direla bermatzeko.
- Polizia Zerbitzuaren inguruko plangintza egitea administrazioarekin, justiziarekin eta gizartearekin lotutako aldagaiekin.
- Zerbitzua planifikatzea norberaren azterketatik eta pertsonen arteko herremantetik abiatuta lantalde eragingarriak lortzeko.
- Udaltzaingoko kideak zuzentzea, aginduak, argibideak, irizpideak eta jarduteko arauak emanda.
- Harremana izatea beste polizia-talde batzuekin polizia eta antolaketa arloko teknika berriak egunean izateko.
- Udaltzaingoko langileen etengabeko prestakuntza bermatzea eta, bereziki, zerbitzura atxiki berri direnena.
- Udaltzaingoaren jardueren estatistikak eta urteko memoria aurkeztea, horien azterketak egitea eta aholkularitza eskaintzea prebentzio arloko udal-politikak onartzeko.
- Uneoro betetzea armak eta defentsarako gainerako materiala erabiltzeko ezarritako segurtasun-arauak.
- Dagokion prestakuntza duen eta bere kategoria profesionalari dagozkion beste lan batzuk egitea.
- Saileko dokumentuen sarrera eta irteera gainbegiratzea (beste sail batzuei zuzendutakoak barne, Alkatetzakoak barne).
- Laneko absentismoa eta Udaltzaingoko Saileko ordutegia betetzen dela kontrolatzea.
- Saileko gastuen fakturak kontrolatzea.
- Jende asko biltzen den ekitaldietan poliziaren jardura planifikatzea segurtasuna bermatzeko.
- Jardura deserosoen inguruko gorabeherak Hirigintzari jakinaraztea.
- Udal-ordenantzak betetzearen inguruko erantzukizuna bere gain hartzea.
- Babes zibileko jardueren inguruko aholkularitza ematea tarteka.
- Saileko langileak hautatzeko garaian, epaimahaietako kide gisa esku hartzea.
- Bere saileko hautaketa-prozesuetarako gai-zerrenda prestatzen laguntzea.
- Saileko sekzio ugarien inguruko erantzukizuna bere gain hartzea.
- Dagokion prestakuntza duen eta bere kategoria profesionalari dagozkion beste lan batzuk egitea.

**II. Izangaien betebeharrak**

Eskaerak aurkezteko epea amaitzen den datan lanpostuen zerrendan zehaztutako eta deialdi honetan eskatutako esakizun eta baldintza jakin batzuk betetzen badituzte, jarraian zehaztutako eskakizun hauek betetzen dituzten pertsonak parte hartu ahal izango dute:

- a) Durangoko Udaleko edo beste edozein herri-administrazioetako karrerako funtzionario izaera izatea poliziako ikuskapeneko edo, indarrean dagoen araudia-
ren arabera, baliokidetzat aitortutako eskalari dagokion kategoriarekin.
- b) Zerbitzu aktiboko, zerbitzu berezietako, seme-alabak zaintzeko eszedentziako edo Euskadiko Polizia Legeko 82. artikuluan aurrez ikusitako eszedentziako egoeran egotea. Horrez gain, prozedura honen bidez zerbitzu aktibora itzulita, derrigorrezko eszedentzia-egoeran daudenek, beste herri-administrazio batzue-
tan zerbitzuan daudenek edo, Polizia Legeko 63. artikulua xedatutakoa betez, birgaitu dituztenek lehiaketan parte hartzeko aukera izango dute. Gauza bera gertatuko da sei hilabete baino gehiagoko eperako zigortuta daudenen eta bo-
rondatezko gainerako eszedentziadunen kasuan, baldin eta egoera horietarako ezarritako denbora bete badute.
- c) Lanpostuaren eginkizunak normaltasunez betetzea eragotziko dion gaixotasunik edo akats fisikorik ez izatea. Baldintza hori dagokionean egiaztatu beharko da Udaleko osasuna zaintzeko zerbitzuak hautatutako izangaiari egingo dion azter-
ketaren ostean.

III. Eskabideak aurkeztea

Hautaketa-prozesuan onartzeko eskatuz bidalitako eskabideak, Herritarren Arreta Zerbitzuan eta webgunean (www.durango.eus) eskuragarri dagoen eredu normaliza-
tuaren arabera, Alkatetzara bidali eta Herritarren Arreta Zerbitzuan (Barrenkalea, 17) edo Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16.4 artikuluan aurrez ikusitako beste edozein modutan aurkeztu beharko dira deialdiaren iragarkia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ar-
gitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 15 egun balioduneko epean.

Izangaiek bigarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela idatziz jaso eta eskabidearekin batera curriculum vitae aurkeztu beharko dute. Bertan, honako hauek jaso beharko dira:

1. Titulu akademikoak.
2. Betetako lanpostuak (herri-administrazioak zein, dagokionean, enpresa pribatuak). Horrekin lotuta, postu horiek zer enpresa edo erakundetan bete zituen, zenbat denboran, agindutako funtzioak zein ziren eta kudeaketaren emaitzak zein ziren zehaztu beharko da.
3. Egindako ikasketak eta ikastaroak, hizkuntzen ezagutza eta izangaiak aipatzea egokitzen jotzen dituen gainerako merezimenduak.

Gainera, eskabideari eskatutako eskakizunak eta argudiatutako merezimenduak justifikatzen dituen dokumentazioa erantsi beharko dio:

- Beste administrazio batzuetan betetako lanpostuekin lotuta garatutako lana zerbitzu horiek eskaini diren administrazio organoak igorritako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko da. Bertan, helmugako osagarriaren maila, betetako postuetako bakoitzean emandako denbora eta horietan garatutako funtzioak jaso beharko dira.
- Titulu akademikoak, prestakuntzako eta hobekuntzako ikastaroak, edo emandako edo jasotako masterrak. Igorritako ziurtagiriaren, tituluaren edo diplomaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko da.

Balorazio-prozesuetan, interesdunen azalpenak edo, dagokionean, argudiatutako merezimenduak egiaztatzeko beharrezkotzat jotako dokumentazio osagarria bildu ahal izango dira.

Egokitzen jotako bitartekoen bidez, izangaiek argudiatutako merezimenduak egiaztatu ahal izango dira.

**IV. Izendapena**

Idazkari orokorrak igorriko du izendapen-proposameneko txostena. Bertan, izan-gaien arteko egokitasuneko proposamena prestatu edo deialdia izendapenik gabe uztea proposatuko du. Txostena eskaerak aurkezteko epea amaitu den datatik zenbatzen hasi eta hamabost egun naturaleko epean igorriko da Alkatetzak, arrazoituta, epe hori luzatzeko ebazten duenean izan ezik.

Egokitasuna aztertu ahal izateko, ez dira kontuan hartuko udalekoa baino goragoko esparruko polizia-taldeetan edo 5.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietako udaltzain-goetan azpiofizialaren kategoriako edo kategoria handiagoko postuetan gutxienez urte-beteko esperientzia egiaztatzen ez duten hautagaiak.

Izendapena gehienez hilabeteko epean egin beharko da, eskari-orriak aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasita, salbu eta deialdia egin duen organoak modu arrazoituan erabakitzen badu epe hori luzatzea.

Deialdiaren ebazpena Durangoko Udaleko alkateak-presidenteak egin beharko du eta bertan arrazoituko da aukeratutako hautagaiak deialdian eskatutako baldintza eta eskakizunak betetzen dituela eta horretarako gaitasuna duela. Izendapena egiteko eskumena duen organoak hautagaien egokitasuna baloratu ahal izateko espezialisten esku-hartzea bildu ahal izango du.

Izendapena Bizkaiko eta Euskal Herriko aldizkari ofizialetan argitaratuko da.

V. Lanpostua jabetzan hartzea

1. Lanpostuaz jabetzeko epea bi egun baliodunekoa izango da udalerri-aldaketarik biltzen ez badu, edo hamar egun baliodunekoa udalerri-aldaketa edo zerbitzu aktibora itzultzea eskatzen badu. Dena den, epe horiek murriztu egin ahal izango dira zerbitzuaren beharrek hala eskatzen dutenean eta prozedura amaiaraziko duen ebazpenean hala aurrez ikusten denean.

Lanpostuaz jabetzeko epea dagokion aldizkarian argitaratuko den eta prozedura amaiaraziko duen ebazpenean jasotako datan gertatuko den kargu-uztearen hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Ebazpenak zerbitzu aktibora itzultzea eskatuko balu, lanpostuaz jabetzeko epea argitalpen horretatik aurrera zenbatu beharko litzateke.

2. Funtzio publikoaren arloan indarrean dagoen araudiak xedatutakoa betez, lanpostuaz jabetzeak funtzionarioa deitutako postura behin betikoz atxikitzea ekarriko du berekin, edozein unetan eskumenaren arabera kentzeko aukerari kalterik eragin gabe.

3. Aipatutako araudiaren arabera, modu askean izendatutako funtzionarioa kargugabetzeak bere eskala eta kategoriari dagokion postuan behin-behinekoz atxikitzeko eskubidea dakar berekin baldin eta zeregin horretarako eskatutako baldintzak betetzen baditu. Kargugabetze-dataren hurrengo egunetik aurrera izango luke horrek eragina.

VI. Gorabeherak

Deialdiaren, oinarrien eta bertatik eratorritako administrazioko ekintza guztien aurka egin ahal izango da Herri Administrazioen Administrazioko Prozedura Erkideari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arazten duen Legeak xedatutako kasuetan eta moduan.

Durangon, 2019ko apirilaren 15ean. —Alkatea, Aitziber Irigoras Alberdi